

I·D arte

Arte eta Goimailako Diseinu Eskola
Escuela de Arte y Superior de Diseño

Estrategia Dokumentua

2022ko martxoa

Egitekoa

Eraldatzearen aldeko eragileak izango diren diseinatzaileak prestatzen ditu IDarte-k eta gizartearen arazo, premia edo eskakizunei, termino kultural, etiko, sozioekonomiko eta ingurumenari lotutakoetan, erantzun esanguratsua emango dien ikuspegi global batetik interpretatzen du diseinatzaile horien lana.

Ikuspegia

Diseinatzaileak eraldatze sozialean funtsezko eragileak izatea.

Horregatik, Diseinuaren eremuko sortzeko, berriztatzeko, babesteko, transmititzeko eta ikertzeko prozesuetan (akademikoak, sozialak, kulturalak, etikoak eta profesionalak) erreferentzia izan behar du IDarte-k.

Baloreak

Diseinuaren funtzio publikoa

Diseinua eraldatze eta integrazio sozialerako tresna izatearen aldeko konpromisoa duen erakunde publiko bat da IDarte.

Ekimena

Diseinua eraldatze sozialaren erdigunean kokatzen den jarduerak gauzatzen ditu IDarte-k.

Berriztapena

Abangoardia kultural eta teknologikoan dago IDarte eta diziplinarteko proiektuak, etorkizuna sortzeko industrien arloan eta lan egiteko metodologia berrien laguntzarekin, elkartzen ditu.

Sozialak

Iraunkortasun-, berdintasun-, lankidetzaz-, elkartasun- eta deontologia-irizpideen arabera egiten du bere jarduera IDarte-k.

Herritartasun globalizatua

Lokalaren eta globalaren arteko truke aberasgarrian sinesten du IDarte-k.

1

Kalitateari lotutako helburuak

Diagnostikoa

Kudeatzeko sistema bat ezarrita ez duen EAEko ikastetxe bakarretako bat gara.

Gure ikasketak ziurtatzeko ezinbesteko urratsa da, gradu-ondoko ikastaroak eskaini ahal izateko, Unibasq-eren datu-basean egoteko eta publizitatzan duten hezkuntza-eskaintzan presentzia izateko alde aurreko urratsa, alegia.

Kalitate-sistema bat ezartzeak lan-kultura sortzen du IDarte-n, metodologiak estandarizatzen ditu eta zereginak sistematizatzen ditu. Atazen sistematizazio horrek prozedurazko atazen denborak minimizatzen ditu, akatsak minimizatzen ditu eta behar berriak detektatzen ditu.

Helburuak

- 1.1.** IDarte-n **PKS bat** (Prozesuen bidezko Kudeatzeko Sistema bat) **ezarri eta ziurtatzea** (AENOR), indarguneak ustiatuz eta ahulguneak zuzenduz kalitateko estandar handiagoak lortzeko aukera emango duena
- 1.2.** **Etengabe hobetzeko** eta prestakuntza etengabe jasotzeko prozesuak eta ohiturak ezartzea ikastetxean
- 1.3.** **KBBS** (Kalitatearen Barne Bermearen Sistema) ezartzea
- 1.4.** **Titulazioak** akreditazio-agenda (UNIBASQ-ANECA) baten bidez **ziurtatzea**
- 1.5.** **Plan estrategikoa** diseinatu eta hedatzea
- 1.6.** **Prozesuen arduradunak definitzea**. Prozesu desberdinen batzordeak /arduradunak sortzea. Haien artean hauek nabarmendu ditzakegu: homogeneizazioa, datuen analisia, liburutegia, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak, ...

KBBSn integratutako prozesu bat ezartzearen bidez **lanpostuen definizioa eta konfigurazioa** hobetzen du.
- 1.7.** Alde interesatuak **gogobetetasuna** neurtzea eta hobe daitezkeen puntuak antzematea.

2

Kurrikuluma berritzeari eta hezkuntza eskaintza garatzeari lotutako helburuak

Diagnostikoa

Hezkuntza-eskaintzaren erreferentzia izan nahi du IDarte-k, plan estrategikoan definitutako alde interesatu guztiei (Hezkuntza Saila, ikasleak, irakasleak, ikasle ohiak, diseinuaren sektore profesionala, abangoardia kultural eta artistikoaren sektorea, agintzaileak, herritarrak oro har) zuzendutako diseinuaren terminoetan.

Badugu diseinuan erabateko prestakuntza eskaintzeko aukera (kurrikulum-perfil mistoak dituzten irakasleak ditugula kontuan hartuta).

Diseinuaren sektorea aurrera eramateko aukera emango duten garapen kultural, zientifiko eta teknologikoaren esparruak izango direnei (IA, 3D, programazioa, Big Data, errealitate birtuala, errealitate handitua, User experience, iraultza energetikoa, diseinu-, kudeaketa- eta planifikazio-zerbitzuak, ...) buruzko prospektiba egin behar dugu derrigorrean.

Online prestakuntza plataformak (LinkedIn, Google, Domestika, ...) protagonismo handia hartzen ari dira eta horrek hezkuntza-eskaintzaren tipologia hori merkatuaren premietara egokitzen dela berresten du.

Helburuak

- 2.1.** Barne Diseinuko eta Diseinu Grafikoko graduak berdiseinatzea, premia sozial berrietara eta merkatuaren premietara egokitzeko eta horrela UNIBASQ-ren aldetik akreditazioa jasotzeko.
- 2.2.** EE ASS-en barruan kokatutako titulazioa (MECES II) diseinatzea, Argazkigintzako, Ilustrazioko eta Animazioko goi teknikariaren gaurko titulazioak (MECES I) bilakatu ahal izateko eta horrela ikasle horiei akademikoki aurrera egiteko bide handinahiago bat eskaintzeko.
- 2.3.** Modako Diseinuan eta Produktu Diseinuan EE ASS-en ikasketa-plana aurrera eramatea, oraindik garapen akademikoa ez duten esparruetan EAERI titulazioak eskaintzeko eta horrela lanean eta sektore profesionalan presentzia handia izateko.
- 2.4.** Diseinuaren garapenean funtsezkoak izango direla interpretatzen den arloen (IA, 3D, programazioa, Big Data, errealitate birtuala, errealitate handitua, User experience, iraultza energetikoa, diseinu-, kudeaketa- eta planifikazio-zerbitzuak, ...) zerrenda zehaztea, proiektuetan lankidetzan aritzeko eta behar den prestakuntza izateko aukera emango diguten enprekin /erakundeekin aliantzak egiteko alde aurreko urrats gisa.
- 2.5.** Online hezkuntza-eskaintza aurrera eramatea, orduen eta garraioaren aldetik prestutasun mugatua izango duten profesionalak prestatzeko aukera emango duen gorantzko hezkuntza-eskaintzara egokitu ahal izateko.
- 2.6.** Titulazioak premia sozial eta merkatuaren premia berrietara egokitzeko aukera emango duten ikerketa-ildoak aurrera eramatea; gainera, ikerketa-ildo horien bidez metodologia eta baliabide abangoardistak emango zaizkie IDarte-n erabiltzen diren irakatsi eta ikasteko prozesuei.
- 2.7.** Proiektu eta edukien publikatzea sustatzea.
- 2.8.** Gizartearen (ikasleak, kolegiatuak, enpresak, administrazioa, sektore estrategikoak, ...) prestakuntza-garapenera joango diren gradu-ondoko bideak (masterrak, doktoretzak, mota guztietako prestakuntza ikastaroak, ...) diseinatzea.
- 2.9.** Merkatuaren azterketa bat egitea, geroago gure alde interesatuetara egokituta egongo den online hezkuntza-eskaintza aurrera eraman ahal izateko.

3

Hobekuntza pedagogikoari lotutako helburuak

Diagnostikoa

IDarte-k lan interinitate handia du. Aldakortasun horrek arazo ugari sortzen ditu:

Irakasgai batzuetan urterro irakasle aldaketa bat dago. Ondorioz, irakasgai horiek ez dira sendotzen. Edukiak, metodologiak eta ebaluazio-irizpideak aldatu egiten dira ikasturtez ikasturte.

Era berean, IDarte-k ez du irakasgaien edukiak eta ebaluazio-irizpideak zehazten dituen goragoko mailako organismorik, hala nola Berritzeguneak, Ikaslan, TKnika edo Unibasq

Egoera horren ondorioz, eskola ez da gai ez derrigorrezko irakaskuntza-edukiak ez ebaluazio-irizpideak ezarri eta estandarizatzeko. Horrek eskakizun-mailak ikasturte batetik bestera aldatzea eragiten du. Praxis txar honek, eta eskolaren izen onari kaltea egiten dio.

Bigarren Hezkuntza antolatzeke dugun sistema ez da egokia eta ez ditu esleitzen zaizkigun funtzioak finkatzen.

Bestalde, sistema publikoko langileak garen aldetik:

IDarte-k ezin du pertsonala aukeratzeko prozesuan parte hartu.

Irakasleen zerrendak orokorrak dira. Askotan langilearen perfila eta plazaren funtzioa bat etortzea zori hutsa da.

Plazak irakastordu eta eskolaz kanpoko ordu inguruan eratzen dira, eduki eta helburu espezifikorik gabe. Horregatik, zaila da geure gain hartzea geure garapen profesionalari zuzenean eragiten ez dioten erantzukizun-funtzioen ardura.

Gure ohituren pisuak aldaketarekiko erresistentziak sortzen ditu: egutegia, ordutegia, hobe daitezkeen lan egiteko metodologiak, gauzatu beharreko curriculum propioa, Bigarren Hezkuntzako exijentziak dituen unibertsitate-eremu batean lan egitea, ...

Irakasleok, oro har, ez gaude gizartearen abangoardia kultural eta teknologikoan murgilduta. Ez dugu era finkoan kultur, enpresa-, ... ekitaldietan parte hartzen.

IDarte-k dituen erronka berrietara egokitzeko galdutako denbora berreskuratzeko ahalegin bat egiten ari da.

- A) Kalitate-sistema bat ezarri eta atxikitzea.
- B) Kurriculium-berritzea.
- C) Hezkuntza-eskaintzaren berregituraketa.
- D) Ikastetxearen antolaketa berregituratzea.
- E) Euskarako lerroak eta arlo batzuk atzerriko hizkuntzaz (ingelesa) emateko prozesua ezartzea.
- F) Prestakuntza. Kurriculium-edukiak eta metodologiak etengabe egokitzea, aldatzen diren gizartearen premietara egokitzeko.

Helburuak

- 3.1.** IDarte-ko langileen **lanean aritzeko era baloratzeko** prozedurak zehaztea, eta barnetik egiten hasiko gara. Umiltasunez jokatu behar dugu, ikastetxea hobetzeari begira fronte desberdinetan egiten ari den lana aitortzeko. Ezin dugu emaitza berririk espero praktika berak aplikatzen baditugu.
- 3.2.** **Programazioen diseinua hobetzeko** estrategiak aurrera eramatea, ikasturtea ondo planifikatzeko eta, etorkizunari begira, irakatsi eta ikasteko estrategiak garatu eta hobetzeko.
- 3.3.** **Ikasturtea planifikatzeko prozesuaren trazabilitatea** dakarten neurriak (irakaslearen koadernoak, edukien eta curriculum-jardueren banku digitala, ...) inplementatzea.
- 3.4.** **LZ (Lanpostuen Zerrenda)** era koherente eta orekatuan **diseinatze**ko irizpideak definitzea.
- 3.5.** **IDarte-ren baloreak** zehaztea eta, horretarako, lehen kursoak balore horiek argi eta garbi ezartzeko funtsezkoak izaten saiatu behar dugu (portaera-liburua- Harvard).
- 3.6.** **Ikasleek gaitasunetan dituzten hutsuneak** antzemateko, prebenitzeko eta gainditzeko mekanismoak sortzea. Sarritan gertatzen diren hutsune horietako batzuk gaineratzen dira:
 - » Ez dute dokumentatzeko ohiturarik (irakurketa, zinema, ...)
 - » Ez dituzte erreferentzia kultural, intelektual eta humanistikoak. Diseinuaren arloko abangoardia kulturaletik urrun daude
 - » Ez dituzte argudiatzeko eta iturriak identifikatzeko estrategiak
 - » Ez dituzte informazioa bilatzeko eta tratatzeko teknikak.
 - » Ahozko eta idatzizko komunikazio falt
 - » Gabeziak dituzte denbora eta bitartekoak kudeatzeko orduan.
 - » Oso ikasketa-plan desberdinetatik datoz
 - » Ez dute selektibitate egiten, eta gure sarbide proba ez da hain zorrotza
- 3.7.** **Irakasleak prestatzeko plana** egitea, ikastetxearen helburu estrategikoekin bat datozen eremuen (zeharkako gaitasunei, espezialitateari, metodologiei, ... lotutakoak) premiak beteko dituenak.

Ondorengo puntuak kontuan hartuko dituen IDarte-ren prestakuntza-plan bat idaztea:

 - » Ikastetxearen prestakuntza-premiak (pertsonalak, ezagutza-arloen arabekoak, departamentuenak, IDarte guztiarentzat) antzematea
 - » Gure gaitasunak eguneroko lanak exijitzen dizkigun funtzio desberdinetara egokitze prozesua etengabeko prestakuntzaren bidez ordezkatea
 - » Berdinen arteko saiok antolatzearen bidez autoprestakuntza sustatzea.
 - » Irakasleen prestakuntzarako dauden baliabideak publikizatzea
 - » Dagoen baliabideen iturria elikatzea
 - » Eremu honetako praktika onak aitortu eta kreditatzea
- 3.8.** Departamentuak, Ikasketa Zuzendaritzarekin batera, **ikasleen ikaskuntza emaitzak diseinatu eta zuzentzeko edota haien lorpena ikuskatzearen** ardura (azterketa eta lanen bidez) hartzen sustatzea, ikasleek eskuratutako gaitasunak garatzeko mailaren neurri objektiboaren gisa.
- 3.9.** Diseinuko Arte Irakaskuntzetara (Goi-mailakoak) egokituko den **metodologia propioa** diseinatzea. Sormen-prozesuei buruzko irakatsi eta ikasteko prozesuak estandarizatzeko irizpideak bateratzea.

Ebaluazio formatiboaren eta sumatiboaren metodo adostuak sartu behar ditu metodologia horrek, **kalibratzeko eta homogeneizatzeko** prozesuak baimenduko dituztenak.
- 3.10.** Ikerketa sustatzea egiaztapen ofizialeko estandarren arabera (UNIBASQ-ANECA). Diseinuaren eta haren kudeaketaren, arteen eta pedagogiaren arloetan praktika ikertzea aintzatestea ahalbidetzen duten ekintzak bultzatzea.

4

Komunikazioari lotutako helburuak

Diagnostikoa

Diseinua prozesuen, produktuen eta zerbitzuen elementu katalizadorea eta eraldatzailea dela interpretatzen dugun aldetik, Administrazioak, kolektiboek, enpresek eta, oro har, herritarrek tresna horren ahalmenak ezagutzea lor dezakegu, betiere gure jardueran ingurune hurbilenean buru-belarri sartzen bagara. Aipatutako guztiek gure jarduer-eremua eta gure indar eraldatzailea behingoz ezagutzeko dugun era da buru-belarri sartze hori.

Diseinuaren erreferentzia akademikoa izan nahi dugu eta, horretarako, Diseinuaren eremuan interesatuta dauden aldeei erabateko zerbitzu bat eman behar diegu.

Diseinuaren kontzeptuari buruzko ikuspegi okerra dute hezkuntza-administrazioek. Oro har, artea eta diseinua nahasteko joera dago. **Diseinua estilismo gisa, eta ez prozesu edo estrategia gisa, ikusteko joera da nagusi.**

Ikasleak arte-eskola batera bidaltzeko baldintzatuegi dago Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako Orientabide zerbitzua. Arte-ohiturak (diseinuarenak kasu honetan) unibertsitatera joateko "mailarik" eta Lanbide Heziketarako perfil egokirik ez duten ikasleen perfiletara egokitzen direla pentsatzeko joera du orientatzaileak. Selektibitatea ezinbestekoa ez den 3. bide bat izateak ez du atzean geratu direnzentzat aukera desiragarria izan behar duenik esan nahi.

Aldameneko Bilbo eta Donostiarekin alderatuta komunikabideetan eragin txikiena duen hirian kokatuta dago IDarte. Dena den, puntu ahul hori aukera bihur daiteke, eragina izateak errazagoa izan beharko lukeelako. Bestalde, Hiri Berdearen izendapena duenez, ekologiari lotuta dago Vitoria-Gasteiz.

Toki enblematiko batean (Betoñoko konbentua) gaude kokatuta eta kokapen horrek ahalmenak ematen dizkigu, bai konbentuaren balio arkitektonikoarengatik, bai hiritik irteteko bide inportanteenetako batean kokatuta egoteagatik. Horrek egiten duguna erakusteko /publikatzeko erakusleiho bihurtzen gaitu.

Helburuak

4.1.

Vitoria-Gasteizek eskaintzen dituen **aukeretan sakontzea**:

- » Alokairu merkeagoak dituen, azpiegituretan ondo hornituta dagoen hiriburua da
- » Eragiteko gaitasun handiagoa dugu
- » "Hiri Berdeari", garatutako Passivhaus industriari (Urrutia, Ventaclim ...), eraikuntzaren industriari (Saltoki, Jorge Fdz., Cortizo, Technal ...) lortzeko aukera
- » Arabaren puntu indartsuak (Arabako Errioxa, Mercedes, Aernova, Zaver, Forjas Alavesas, BH, Baskonia) aprobetxatzea

Euskadiko Diseinu Eskola Publikoa garena eta gure ikasle eta irakasleak praktikan proportzio berean EAEko hiru lurralde historikoetatik eta Nafarroatik datozela ahaztu gabe.

Euskal Herriak eskaintzen dituen **aukeretan sakontzea**:

- » Sektore estrategikoak, KSI (Kultur eta Sorkuntza Industriak), ... garatzeari lotutako garapen-planen bidez aurrera eramandako industria-ehuna
- » Bilboko hautagaitza, estatu mailan Diseinuaren erreferentziako hiria den aldetik

4.2.

Gelan aurrera eramandako jardueren ondorioz Eskolan sortutako produktuek **kanpoko jardurekin** egon beharko dute loturik (azaltzekoak, publikatzekoak, kanpoko eragileek baloratuak izatekoak, diseinatzaileekin, arte-kolektiboekin, enprekin edo erakundeekin .. lankidetzan aritzekoak).

4.3.

Diseinuaren sektorea **hedatzeko eta sektore horri prestakuntza emateko jarduerak** sustatzea

- » Eskolaren lan eta proiektuak erakusteko aretoak.
- » IDaste (Kanpora irekitz
- » Desigh week
- » Hitzaldiak / Aldizkako prestakuntza espezifikokoak Betoñon.

4.4.

Ikastetxeak sustatzen duen **hezkuntza-jardueraren kanpo eta barne komunikazioan** sakontzea:

- » Berritzeguneak
- » Orientatzaileak
- » Sare sozialak
- » Webak
- » Prentsa. Hedabideetan presentzia
- » Enpresak integratzea / Administrazioa ikastetxearen eguneroko jardueran

4.5.

Ikasle ohiak (alumni) artikulatzea, ikastetxeak ematen dituen zerbitzuak etengabe hobetzeko eta gure ikasleentzat erreferentzia izan daitezen

4.6.

Funtsezkoak diren **Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeetan prestakuntza-jarduerak** sustatzea (erakusketak, workshops, TFE defentsak eta lanen aurkezpenak, irakasle eta ikasleentzako prestakuntza-jarduerak, ...)

4.7.

IDarte nahi duten ikasleen perfla definitzea (Portaera-liburuari- Harvard-i lotua)

Orientatzaileekin azpimarratzea gure ikasketetan sartzeko behar den perfilean

4.8.

Jarduera akademikoarekin paraleloan **lan-taldeak sortzeko** premia ikasleen akuilatzea. Lan-talde horiek ikasleei interesatzen zaizkien gaiak egongo dira lotura: boluntariora, kultura, berdintasuna, politika, kirola, ...

4.9.

PROIEKTUEN PROPOSAMENA [ikastetxetik bertatik albistea sortzea]

- » Bilbao Design Week - Milango Bienal eta beste hainbatetan presentzia
- » Elizako eskaileraren proiektua
- » Erretaularen proiektua
- » Gerrilla egitea. Unean-uneko jarduerak Vitoria-Gasteizen.
- » Geure lanak EAEko erakusketa-aretoetan erakuts ditzagun
- » publizitate-kartela "motako elementu batekin lorategiaren espazioa okupatzea (stand/ mobiliarioa / jarduerak ... herritarrei zerbitzua ematea, erreferentzia turistikoa eta kulturalaren puntua izatea hirian.
- » Mapping bideoaren proiektua glass-zubian.

5

Hezkuntza erkidegoaren sarea hobetzeari lotutako helburuak

gure jarduera gizarteari itzultzeko era den aldetik

Diagnostikoa

Administrazio Publikoaren egituraren atala eta, beraz, Zerbitzu Publikoko erakundea garen aldetik, helburu bateratuak partekatzen ditugu erakunde akademiko, sozial, ekonomiko eta boluntariotzari lotutako batzuekin.

Diseinuak gizartearen arazoei edo premiei / itxaropenei era esanguratsuan irtenbidea ematea badu oinarri, saiatzeko tokietan lanean aritzeko leku bat izan behar dugu.

Abangoardia kulturalak eta artistikoak elikatzen duten eta, halaber, abangoardia horiei eragiten dien jardueratzat jotzen dugu diseinua.

Diseinuak maila sozialean merezi duen garrantzia irabaztea nahi dute. Garapen teknologiko eta kulturalaren, abangoardiaren ... sinonimoa izan dadila.

Diseinuaren kultur sare bat dago, sakabanatua, antolaketa gutxirekin, eta haren lanak espero zena baino eragin gutxiago du hedabideetan.

Arte- eta kultur erakundeei hezkuntza-sektorearekin lankidetzan aritzea interesgarri iruditzen zaiela interpretatzen dugu, ondorengo arrazoiengatik:

Diseinuaren sektorea (gaur sakabanatuta dagoena) indartzen dute.

Kultur eskaintza indartzen dute eta abangoardia hedatzeko aukera ematen dute.

Helburuak

- 5.1.** Lankidetzan ari nahi izaten den funtsezko **kolektiboen /erakundeen zerrenda** identifikatzea.
- 5.2.** Eskolaren jarduera **euskal gizartearen premiei** eskaintzea (hezkuntza-sarea, ikasle ohiak, elkargo profesionalak, enpresak, sektore ekonomiko estrategikoak, herritar gasteiztarrak eta euskal herritarrak, kultur eragileak, ...).
- 5.3.** Irakatsi eta ikasteko **esperientzia** esanguratsuak IDarte-ko ikasle eta irakasleei **ematea** (Erasmus programa, enpresetako praktikak, lankidetzak, Workshops, espezializazio-ikastaroak, hitzaldiak, tailerrak, ...).
- 5.4.** KSI-etan dauden erakundeek antolatutako **gertaera eta jardueretan parte hartzea** eta ikasleak jarduera horietan sartzea.
 - » Diseinuko kultur eta arte-jardueren agendan integratzea.
 - » Diseinuko kultur eta arte-jarduerak antolatzen dituzten promotoren artean Betoño integratzea.
 - » Ikasle eta irakasleak partaide izatea jarduera horiek antolatzeko prozesuan.
- 5.5.** Gure ikasle eta irakasleak ahalik eta ondoen prestatzeko **KSI-etako enpresa eta sektore estrategikoekin** era bateratuan lan egitea.
- 5.6.** **Vitoria-Gasteiz eta Donostiako hezkuntza-hirian** integratzea.

Hezkuntza eta gaitasun indibidual eta kolektiboak herritarren eskura jartzea sustatzea, promozio indibidual eta kolektiboan aukera-berdintasuna lortzeko prozesuan estrategia den aldetik; izan ere, herritar sena, elkartasuna edo inklusio soziala bezalako baloreak izango ditu hezkuntzak oinarri. Hitz batean, hezkuntza-giro herritarra lortze aldera.

6

Baliabideen kudeaketari lotutako helburuak

Diagnostikoa

Lortu nahi diren hobekuntza batzuk eskuratzeko, jarraipena eman behar zaie ikastetxea osatzen duten pertsoneri, oso lan-egonkortasun txikia baitu ikastetxe horretako plantilak.

Lan-karrera (lanean aurrera egiteko aukera izatea, sektore ekonomiko eta kulturalarekin harremana ez galtzea, ...) egiteko aukera izan nahi da, prestakuntzari, ikerketari, erantzukizunak hartzeari, ... lotutako helburuak lortzeko prozesuan motibatzeko era den aldetik.

Funtzio Publikoaren atala izateak esan nahi duen horretan sakondu behar dugu, eta gizarteari zerbitzuak eman.

Bestalde, prestakuntza-lana hobeto aurrera eramateko baliabide materialak, pertsonalak eta denborari begirakoak behar ditu ikastetxeak; izan ere, Bigarren Hezkuntzako ikastetxe baten egitura funtzionalaren antzeko batekin ematen dira goi ikasketak gaur egun, eta hori unibertsitate- edo Lanbide Heziketaren eremuetan gertatzen denetik oso urrun dago.

Demokrazia maila handiagoak nahi dituzte irakasleek eta demokrazia handiago hori beren lanean eragina duten eremuetan gardentasun handiagoa, komunikazio handiagoa eta kontsulta- eta gauzatze-botere handiagoa izatea dela interpretatzen dute.

Eremu desberdinetatik (taldeka eta indibidualak) egiten ari diren ahaleginak koordinatu behar dira.

Helburuak

- 6.1.** Ikastetxearen egiturazko **pertsonala egonkortzea** eta lan-kontratazioari buruzko Europako zuzentaruak betetzea Administrazioari exijitzea.
- 6.2.** **Irakasleen garapen profesionala** (karrera profesionala) sustatuko duten oinarriak ezartzeko premia Administrazioari eta sindikatuei planteatzea. Horretarako, ondorengo puntuei lotutako merezimenduak baloratu beharko dira:
 - » Ikastetxearen estrategiari lotutako prestakuntza.
 - » Proiektuak / ikerketak / materiala publikatzea.
 - » Ikerketa
 - » Erantzukizunak hartzea eta helburu estrategikoak lortu diren maila.
 - » Alde interesatuen asebetetze-maila.
 - » Etab ...
- 6.3.** Ikastetxearen **antolaketa-egitura** premia estrategikoetara eta kalitate sistemak eskatutako beharretara egokitzea. Eragile / kolektibo bakoitzaren funtzioak espezifikatuko dituen lan-organigrama berri bat diseinatzea. Halaber, funtzioak finkatu ondoren, funtzio horietan aritzeko lehiatzaileak izan beharreko perfla edo gaitasunak zehaztu behar dira.
 - » Lan ezagutza-arloen arabera sustatzea eta kurtsoa koordinatzea.
 - » Klaustroak antolatzearen bidez barne komunikazioa arintzea.
 - » Antolaketa-egitura plan estrategiko eta programetarik datozen premietara egokitzea.
 - » Diziplinarteko / departamentu arteko lankidetzak bat eta lankidetzan aritzeko zeharkako metodologiak (ETHAZI motakoak) aplikazioa benetan gauzatzea.
 - » Rubrikak diseinatu eta adostea, edukien artikulazioa lortzea, kurtso mailako gutxienezko gaitasunak eta ezagutza-arloak definitzea, irakaskuntza-materialeko liburutegi bat sortzea, ...
 - » Gure prozesuak etengabe hobetzea, kanpo eta barne eragileek gure jardura ebaluatzearekin batera.
 - » Ardurak ahalik eta pertsonen kopuru handienari esleitzea ikastetxeen proiektuak kudeatzeko orduan, gelako jardueraz gain beste funtzioak izango dituzten pertsonen oinarria zabaltzeko asmoz.
- 6.4.** **Funtzionario publikoak** izatearen klabeak buruz hausnarketa egitea:
 - » Gizarteari (pertsonei, kolektiboari, erakundeei, enpresei, ...) zerbitzua emateko funtzioa. Funtzionario publiko gisa egiten den lana gizartearen zerbitzuan dago.
 - » Bikain jokatzeko eta erreferentzia izateko zerbitzatu dugun gizartearen ongizatea lortzen saiatzeko orduan.
 - » Unibertsala. Izaera integratzailea (gizarte osoari ematen dizkio aukerak).
 - » Itzultzea. Inbertsioari errentagarritasuna eman behar izateaz kontziente izatea / gizarteak gudan jartzen duen konfiantza.
 - » Zerbitzari publikoak diren aldetik, irakasleen praktika onen kode deontologiko bat ezarri eta betetzea.
- 6.5.** Gure jardura hobeto erregulatuko duen eta behar diren baliabideak (giza baliabideak, denbora, baliabide materialak eta prestakuntza-baliabideak), gure ikasketak-mailara egokituak (Bigarren Hezkuntzan sartuko ez gaituztenak), emango dizkigun **Goñ Eskolen Zuzendaritza** bat sortzeko eskatzea
- 6.6.** Behar diren baliabideak, premia espezifikoei (ikerketa, gradu-ondokoak, materialak publikatzea, IDaste, FabLab tailerra, kredituen aitortza, ate irekiak, sarrera-azterketa, ...) lotuak, **deialdi ofizialak** publikatzearen bidez.
- 6.7.** **Tknika, Berritzeguneak, PrestGararen** antzeko egitura izatea, metodologiei eta gai espezifikoei buruzko etengabeko prestakuntzara sartzeko.
- 6.8.** Hezkuntza-erkidegoaren eskuduntzak behar bezala garatzeko behar diren teknologiak, baliabide espazialak eta materialak (**FabLab**) ezartzea.
- 6.9.** LOeko Barne graduatuaren titulazioaren **aitortza espezifikoa** lortzea, ahalmen zehatz batzuetan aritzeko, titulazioak ematen diren horretarako prestakuntza, Administrazioak tekniko ez-gaitzat jo ez ditzan.

7

Erantzunkizun sozialari lotutako helburuak

gizarteari prestakuntza-zerbitzu integralak eskaintzeko era diren aldetik

Diagnostikoa

Erantzukizun sozial korporatiboaren kontzeptuak zentzu handiagoa du IDarte bezalako goi irakaskuntzako zentro publiko batean. Gizartearekin zorra dugunez, prestakuntza-erreferentzia izatea da gure egitekoa eta gure asmoen norainokoak integrala izan behar du.

Gaitasun tekniko edo espezifikoetatik haratago doazen gaitasunekin prestatuta dauden pertsonak gero eta gehiago eskatzen ditu gure gizarteak.

Profesional gehienak emakumeak diren ikastetxe batean, genero-identitatearen terminoetan etengabe eraldatzen ari den gizarte batean, eremu horretan jardun behar da, kolektibo desberdinen premiak asebetetzeko eta gure prestakuntza-lanean integratzeko.

Helburuak

- 7.1.** **Hezkuntza-premia berezietako ikasleei arreta emateko** zerbitzu bat izatea, pertsona elbarrituei arreta emateko EHUko Zerbitzuarekin lankidetzan.
- 7.2.** **Hezkidetzarduradunak** sortzea, ikastetxearen kurrikulumean zeharkako balore eta gaitasunak ezarri lan egingo dutenak.
- 7.3.** **Zeharkako gaitasunak** irakasgaien programazioetan eta programazio horien ebaluazio eta jarraipenean era koordinatuan integratzea, kurtsoa koordinatzeko saioetan kontrolaren bidez.
- 7.4.** Ikastetxearen **erantzukizun sozialaren politika** erredaktatzea.
- 7.5.** Ikastetxearen ingurumen-politika erredaktatzea.
- 7.6.** IDarte-ko hezkuntza-erkidegoa integratzen duten pertsonentzat **inklusio-, ikusgarriak izan daitezen eta berdintasun-politikak** definitzea.
Ikastetxearen Berdintasun Plan bat, arlo horretan ikastetxearen diagnostikoa zehaztuko duena eta aurrera eraman beharreko jarduerak definituko dituena, gauzatzeko prozesuan Berdintasuneko eragileekin (Emakunde, Vitoria-Gasteizko Udala, EHUko Berdintasun Masterra, HUUHEZI, ...) lankidetzan aritzea.

8

Diseinuaren sektorearekin lankidetzan aritzerari lotutako helburuak gure jarduera gizarteari bueltatzeko era den aldetik

Diagnostikoa

Enpresen zerbitzuak /prozesuak / produktuak hobetzeko elementu katalizatzaile gisa interpretatzen dugu diseinua. Gizartearen arazoei edo premiei /aukerari era esanguratsuan irtenbidea ematea diseinuaren oinarria bada, nahi dugun eremuetan lankidetzan aritzeko izan behar dugu tokia.

Haien lan-esparrua prekaritatean geratuko ez den eremu profesionalak bilatu nahi ditugu. Euskadin industria-sektorea aldekoena dela uste dugu.

Enpresek eta arte- eta kultur-erakundeek hezkuntza-sektorearekin lankidetzan aritzea interesgarritzat jotzen dutela interpretatzen dugu, ondorengo arrazoiengatik:

Hezkuntza-sektorean inbertitzeko baliabide material eta giza baliabideak baitituzte.

Horrela haien jarduera ehun sozialera bidera dezaketela ikuste dute. Itzultzea.

Head-Hunting egin dezakete.

Haien Know-How berrelikatu dezakete.

Helburuak

- 8.1.** Lankidetzan ari nahi den **eragileen /erakundeen /enpresen zerrenda** zehaztea.
- 8.2.** **Eragile desberdinekin** elkarrizketatzea, puntu bateratuak aztertzeko eta lanak lankidetzan aurrera eramaten hasteko:
 - » Eusko Jaurlaritzako Industria eta Etxebizitza Saila
 - » Euskal enpresen inkubagailuak
 - » Sektore estrategikoetako, KSletako, ... enpresak
- 8.3.** **Enpresak** IDarte-ren **ohiko jarduerara** sartzea.
 - » Ate irekiak enpresentzat
 - » IAL-aren defentsak
 - » Produktuen erakusketak
 - » Hitzaldiak, tailerrak eta workshop
 - » Prestakuntza
 - » Publikatuko direla, berrikusiko direla eta kanpoko eragileekin kontrastatuko direla pentsatuta gelako jarduerak diseinatzea
- 8.4.** Ondorengo puntuei buruzko **loturak** aztertzeko **enpresekin** batera:
 - » Lankidetzako proiektuak
 - » Gradu-ondokoak
 - » Prestakuntza espezifikoa
 - » Prestakuntza duala eta enpresetako praktikak
 - » Ikasleen eta irakasleen prestakuntza ...

9

Hizkuntza normalkuntzari lotutako helburuak

Diagnostikoa

Euskaldun guztien kultur ondarea da euskara, herritarrek badute beren ama hizkuntzan,- gainera koofiziala dena,- erabat komunikatzeko eta, hortaz, bizitzeko eskubidea eta, luze eta zabal erakutsi denez, gure bizitzaren esparru guztietan (unibertsitate-eremuan eta eremu profesionalean barne) erabil daiteke.

Dena den, behar bezala aurrera egiteko ibilbide luzea egin behar du oraindik gure Eskolan (lehen promozioa ateratzear dago).

Helburuak

9.1. Ikastetxearen Hizkuntza Planean integratuta egongo den **Euskara Normaltzeko Plana** diseinatzea

10

Gure jarduera nazioarte bihurtzeari lotutako helburuak

Diagnostikoa

Bizi garen mundu globalizatuan ezinbestekoa da IDarte osatzen duten pertsonen hizkuntz murgiltzea, gure jarduera munduari ireki ahal izateko eta, era berean, munduko beste toki batzuetatik partekatze joera dagoen esperientziak elkarren artean trukatzeko.

Komunikazioaren iraultza batean bizi gara eta iraultza horretan mugikortasunari lotuta ez dauden esperientziak parteka daitezke. Horregatik, hizkuntz gaitasuna izatea ezinbestekoa da, munduko bazter guztietara iritsi ahal izateko.

Gainera, baditugu, zorionez, ikasle eta irakasleei zuzendutako nazioartekotze-programetan egitura, baliabideak eta aitortza. Programa horiei esker, gizarte globalizatu batean integratu ahal izango dira IDarte osatzen duten pertsona guztien prestakuntza-premiak eta, gainera, iraultza bat izango da mugikortasunaren terminoetan.

Helburuak

10.1. **Ikastetxearen Hizkuntza Plana** diseinatzea

10.2. **Ingelesa**, atzerriko hizkuntza gisa, ikastetxearen hezkuntza-eskaintzan **ezartzeko prozesua** indartzea, atzerriko hizkuntzan 60 ECTSren (gutxienez) eskaintza bat lortu arte, ondorengo jardueretarako:

- » ERASMUS ikasleei harrera egin ahal izatea
- » Gure ikasleak lan-eremu globalizatu batean hobeto trebatzea
- » Aurreko etapetan ezarritako programei jarraipena ematea

10.3. **Erasmus programaren bidez** IDarte-ko ikasle eta irakasleei irakatsi eta ikasteko esperientzia esanguratsuak ematea